

ZUGAZ MUNDUARI OIHU

2018ko martxoaren 15a, osteguna.
"Gaur, euria egin du"

Ekai maitea:

Zu bariko lehen hilabetea ez da erraza izan. Izar berri bat piztu da gure Euskal Herriko zeru gainean, zure argia, argi biguna, jaio da zeru urdinean, hodeiertzetan.

Oraindik akordatzen naiz lo, gure besotan lo gelditzen zinenean eta ondoren azkenaz akordatzen gara ilunaren etorreran joan zinenean, egunabar berriari gehiago zain egoteko gai izan ez zinen amets eder hori. Orduan, agurtzean, zu gure besoen artetik galtzean, ito zitzazkigun ametsak gure barnean. Borroka gehiagorik egin gabe. Zure hutsunea gailenduz.

Beti hain azkar dabilen mundu honetan astiro ibiltzen irakatsi nahian aritu ginen aita eta biok, baina hala ere konturatu aurretik ihes egin zenuen, ihes gure eskuen artetik. Joateko adorea izanik, eta berriz hasteko beldurra atzean utzirik. Bizia estu eta larri onartu zenuen batzuetan, azkenean hura elikatzeari utzirik. Ordea, bizitza ez da guretzat egundo izango. Lehen zen bezalako ez, harrez gero.

Gaur euria ari du, Ondarruko kaia hodeiez eta haren ertzez estalia dago. Hotza eta iluna dira gaurkoan nagusi bazter guztietan hotsik egin gabe, zeruan ez dabil inor ere hegan egiten ikasten, xori guztiak dira isildu. Hemen hormigoizko zoruetan, ordea, guztiek antzera jarraitzen dute. Lantzean, egun batzuetan, bihotza duten izaki-gardenak izaten dira triste, agindutako promesa hura ezin konplitu gelditu baikin. Milaka eta milaka promesa, hitzemande gelditu ziren jaberik gabe. Airean izan nahi zuten hasperen bakoitzean. Airean deuseztu zirelarik. Bai, jaberik gabeko esperantza faltsuak. Mundu honetan, Ekai maitea, beharrezkoa baita sinestea, eguna etorkizun zati zein esperantzez betetzea.

Denbora apur baten beharrean gaudela diote psikologoek, jendeak dio buruko oihuek zarata egiteari uzteko, ustez zu gutxiago faltan botatzeko behar dugula ordularien orratzak mugitzea, denbora igarotzea, baina nola jarraitu aurrera maite dugun hori atzean utzita, hura zaintzea eta zoriontsu egitea gure helburu zenean, gaizki edo oker,txarto zer egin genuen egunero geure buruari galdetuta, nola bizi zu ez zaitugula. Buruan zarata nagusi denetan, zure falta dugunetan, zure hutsunea inork ere bete ezin duen egun orotan.

Aitzakia zein gezur bat, esperantza edo itxaropen faltsu bakar bat beharko genuke. Bat gehiago, azkena, zu apur bat gertuago sentitzeko. Nor eta zer garen momentu batez ahaztu ahal izateko, birak ematen dituen mundu azkar eta arduragabe honetan pausatzeko, mundu honen azken bira noiz hasiko ote den axola barik. Ikarez, beldurrez eta izuez, ezberdintasunen aurrean aurreiritzi zein minez une soil batez atsedean hartzeko eta ihes egiteari ekiteko. Bete gabeko promesa zein erakunde publikoen astiro ibiltze hartatik urrun. Birak eman ez ihes egiten, noraino iritsiko garen ohartu gabe, ez baikara gai ikusteko nondik irten. Ihes egiten, garrasi egiten. Munduari oihu egiten, amorru zein gorrotoei leku utziz. Mundu honek dituen debeku zerrendak atzean utziz.

Gizarteak ezkutatua duen gerra, borroka eta ustez ausazkoa den honetatik ihesean, su ertzetik oihu egin aurretik joan zinen Ekai. Egi puztuei aurre egiteari nekatuta, eztarria isiltasun oihuez urraturik. Zure azken hatsak arduratzen ez zintuela. Egunsentiko lore zauritu koitadua, zure ahots eder hori nork ito ote du, zure oihuak nork isildu.

Bitartean mahaiaren bueltan, egun txarrekin, oinazearekin eta ezerezean aurkitzen ez dugun kemenarekin zer egin gogoetatzen aritu gara. Iraganaz ere mintzatu gara, zu gure artekoa zinenekoaz. Beste batzuetan orainaz, zure hutsunea dugun une edo instante honetaz. Galdu baikara aita eta biok, gure borroka amaitu delarik.

Equak zugaz pentsatzen, zugazko momentuak berriz bizitu nahian esperantzari helduta esna-kantuak abesten dizkiogu zorionari, tristezia irrifarrekin estaltzen errepidean galduta gabiltzalarik. Zu bariko egun eta hilen kontaketa, zenbaketa. Zeinen egia den maite dugun harekin galtzeko denborarik ez dugula. Esperantza faltsurik gabe, zu ez zara itzuliko. Ez zara hona bueltatuko. Inork ere ezin dizu bizia eman edo itzuli, bizia gure buruan hartu baituzu. Gure memoria zein oroimenetan, gure ametsetan, begiak ixten ditugun bakoitzean.

Itzali zara gure argi maitea, ilunetan gizartearen aurka pentsamendu askori aurre egiteko gudukatu eta ustez, guda guzti horiek irabazi ez zenituelakoan. Ondoren, jende aurrean borroka egin izan ez bazenu bezala agertuz, zapalkuntzen aurrean eta ezetzaren aurrean amore emanik.

Gaur, egun euritsuen ondorio gara, baina egunen batean ateri denean, euriaz mintzatuko gara. Bitartean, zu gure momentuen jabe izango zara, gure ezerezean kemena. Ekiten duenak soilik baitu saiatzea sari.

Gau ilunean otso bat entzun aitzinetik, animaliarene bat barre egiten aditu aurretik, mendietan amestu barik eta koloreak airean ikusi gabe joan zara. Ondarruko itsasoaren kresalaren zapore gazi-gozoa dastatzearen ihesean, joatea erabaki duzu. Iduriz haurra zinenean gehiegi dastatu zenuelakoan.

Egunerokoan egun bat gehiago, maitea. Joaten denak uzten duen hutsunearen berri bazeneki, zure zain gaude orain eta egongo gara beti.

Amatxo eta Aitatxo

"Zugaz"